

Genero Arrazoiengatiko Jazarpena: prosezuaren sistematizazioa

2005-2011



INICIATIVAS DE
COOPERACIÓN
Y DESARROLLO

Comisión de Ayuda
al Refugiado en Euskadi



Finantziazioa:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



INICIATIVAS DE
COOPERACIÓN
Y DESARROLLO

2011ko otsailetik - 2012ko urtarrilera
Gordóniz 44, 10 - 8 • 48002 Bilbao
tel: 94 410 10 05
info@iniciativasdecooperacionydesarrollo.com
www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.com
www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.wordpress.com



Cristo 9B - 5º • 48007 Bilbao
tel.: 94 424 88 44 • fax: f 94 4245938
www.cear.es • ceareuskadi@cear.es


Argitalpenaren urtea eta lekua: Bilbao, 2011.

Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Aurkibidea

Aurkezpena	5
1. Ibilbidea	9
2. Sistematizazioaren helburua, gaia eta ardatza	13
3. Historia gogora ekartzea. Galdera kritikoen gida	17
4. Ondorioak, irakaspenak eta gomendioak (OIG)	23
4.1. Subjektuek inplikatzeko dituzten interesak eta lehentasunak: horiei buruzko OIG, eta nola kudeatu dituen CEAR-Euskadik	26
4.2. CEAR-Euskadiren barne-alderdiei buruzko OIG	35
4.3. Esparru teorikoari buruzko OIG	41
4.4. Zeharkako hauei buruzko OIG: genero-ikuspegia eta SAGN (dibertsitate sexuala eta genero-nortasuna) ikuspegia:	46
Zeharkakoak: Barne-alderdiak	46
Zeharkakoak: Esparru teorikoa	48
Zeharkakoak: Inplikazioa eta parte-hartzea	49
4.5. Testuinguruari buruzko OIG	52



Aurkezpena

*"Ez zaio beldurrik izan behar aldaketari; aitzitik, bilatu egin behar da.
Aldatzea da bidean gelditzea,
muino batera igotzea eta gure bizitzari so egitea.
Zertan dira antzekoak egindako bidea eta egin nahiko genukeena?"*
Josefina Aldecoa

Bagenekien CEAR-Euskadiko Eragin eta Partze-hartze Sozialeko (EPS) lantaldeko kideak aspalditik zebiltzala sistematizatzeko ideiarekin gora eta behera. Hori, baina, ez da batere harritzekoa, baldin eta kontuan hartzen badugu, batetik, lantalde horrek energia, grina eta elkarrengandik ikasteko gogo itzela duela lanean, eta, bestetik, sistematizazioak hausnarketa eta talde-ikaskuntza sustatzen dituela. Kanpotik ikusten genuen EPS lantaldeak "halabeharrez heldu beharko ziola" sistematizazioari.

Dokumentu honetan, CEAR-Euskadiren Genero Arrazoiengatiko Jazarpenaren esperientziaren sistematizazio-prozesua jaso dugu. Sistematizaziorako taldeak bultzatu du prozesu hori. CEAR-Euskadiren EPS lantalde osoak hartu du parte: Itziar Caballero, Raquel Celis, Leire Lasa eta Iñaki Ramírez de Olano. Lala Mujikak, Aldarteko ordezkariak, ere parte hartu du. Iniciativas de Cooperación y Desarrollo-k bideratu du sistematizazioa, eta prozesuaren txostenak eta dokumentu hau egin ditu.

Halaber, hauek guztiek parte hartu dute, galdera kritikoei erantzunez eta funtsezko hausnarketa zabalduz:

- Miren Ortubay (Forum Feminista María de Maeztu).
- Amaia del Río (Hegoa).
- Karen Musalo (Hastingeko Unibertsitateko Center for Gender and Refugee Studies, San Frantzisko).
- Mertxe Agúndez (PSOE, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordea).
- Irene Ayala (UPV/EHU).
- Juana Balmaseda (Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua).
- Arsenio Cores (abokatua, CEAR-Madril).
- Mauricio Valiente (abokatua, CEARko kidea).
- Suniva Martínez (abokatua, CEAR-Euskadi).
- Patricia Bárcena (CEAR-Euskadiko zuzendaria).

ALBOAN fundazioko Marlen Eizaguirrek kanpoko begirada ekarri du, eta ekarpen teorikoak, praktikoak eta metodologikoak egin ditu.

Eskerrik asko guztiei eskuzabaltasunagatik, bai eta sistematizazio honetan egindako hausnarketak eta irakaspenak aberastu eta sakondu dituzten iritziengatik ere.

Dokumentu hau zenbait zatitan antolatuta dago:


1. Lehenik eta behin, prozesu honetan egin dugun ibilbidea deskribatuko dugu.
2. Bigarrenik, sistematizazioa bideratze aldera ezarritako helburua, gaia eta ardatza azalduko ditugu.
3. Hirugarrenik, historia gogora ekarriko dugu, eta galdera kritikoaren gida aurkeztu.
4. Laugarren atalean, sistematizaziorako taldeak, parte-hartzaile guztien hausnarketa partekatua oinarri hartuta, atera dituzten ondorioak, irakaspenak eta gomendioak bildu ditugu.

Azkenik, prozesuari buruzko eranskinetan, ibilbidearen urrats bakoitzean zer egin dugun adierazten da.

Eskerrik asko eskuzabaltasunagatik, irekitasunagatik eta aukera emateagatik asiloaren eta genero-arrazoiengatiko jazarpenaren erronketatik ikasteko. Oraindik hor daude parte hartzeko eta politikan eragina izateko erronkak, bai eta ikasteko eta justizia nahiz aldaketa bideratzeko espazioak eta prozesuak sortzeko gogoia ere.

Oraindik ere prest gaude erronkei aurre egiteko.

Besarkada bat eta osasuna,
Fernando Altamira eta Esther Canarias
Iniciativas de Cooperación y Desarrollo
2011ko abenduaren 23.



1. Ibilbidea

Iniciativas de Cooperación y Desarrollo-ko kideok urrats hauek proposatu genituen CEAR-Euskadi sistematizatzeke:

0 urratsa. Sistematizaziorako taldea sortzea

Prozesuaren talde eragilea izan da. Talde horretan parte hartu dute CEAR-Euskadiren EPS lantaldeko kide guztiek eta Aldarte elkarteko kideek. Elkarre horrek aspalditik egiten du lan lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen (LGBT) kolektiboekin. Iniciativas de Cooperación y Desarrollo-k bideratu du prozesua.

1. urratsa. Sistematizazioa egiten hastea eta lehenengo galderak

Sistematizazioa egiten hasteko, sistematizazio-prozesuari buruzko lantegi bat egin genuen. Sistematizaziorako taldeak sistematizaziori begira zituen espektatibak hartu genituen abiapuntuztat. Sistematizazioak zer esanahi, irismen, urrats eta metodologia dituen ikasi genuen, eta helburua, gaia eta ardatza identifikatu genituen.

- 1. eranskinean jaso dugu sistematizaziori buruzko prestakuntza-materialaren zati bat.
- 2. eranskinean jaso ditugu sistematizazio-prozesuarekiko espektatibak.

2. urratsa. Erregistroak identifikatzea, aukeratzea eta prestatzea

CEAR-Euskadiren EPS lantaldeak sistematizatu beharreko esperientziaren erregistroak aukeratu zituen, "eskura" izateko historia gogora ekartzean eta funtsezko hausnarketa egitean.

3. urratsa. Bizi izandako prozesua gogora ekartzea

Urrats horretan, bizi izandako prozesua gogora ekarri genuen, historiaren espiralaren eta ordenamendu-gidaren bidez. Memoria historikoa eratzten ari ginela erregistroak erabili genituen lagungarri, galdera kritikoen gida egin genuen.

- 4. eranskinean jaso dugu historiaren espirala.
- 5. eranskinean jaso dugu ordenamendu-gida.

4. urratsa. Interpretazio kritikoa: galdera kritikoen gida erantzutea

Prozesuaren urrats honetan, lehenik eta behin, sistematizaziorako taldeak erantzun zien galderari, eta, gero, beste pertsona batzuek, genero-arrazoiengatiko jazarpenaren prozesuan zehar parte hartu zutenek.

- 6. eranskinean jaso ditugu sistematizaziorako taldeak eta beste pertsona batzuek galdera kritikoen gidari emandako erantzunak.


5. urratsa. Beste ikuspegi batzuk

Hausnarketa zabaltzeko eta sakontzeko, ALBOAN erakundeko Marlen Eizaguirrek ekarpen teorikoak, praktikoak eta metodologikoak egin zituen.

- 7. eranskinean jaso dugu Marlen Eizaguirreren ikuspegia.

6. urratsa. Ondorioak ateratzea, irakaspenak biltzea eta gomendioak egitea

Partekatu eta kontrastatutako hausnarketak oinarri hartuta, sistematizaziorako taldeak, prozesuari begira, ondorioak atera, irakaspenak bildu eta gomendioak egin zituen.



2. Sistematizazioaren helburua, gaia eta ardatza



Sistematizazioa egiteko, hiru galdera nagusi erabili genituen hausnarketa eta analisi kritikoa bideratzeko. Haien bidez, sistematizazioaren helburua zein zen definitu genuen, gaia denboran eta espazioan mugatu genuen, eta ardatza zein zen zehaztu genuen; hau da, zehaztu egin genuen esperientziaren zer alderdi nahi genituen gogora ekarri eta aztertu.

Hona hemen CEAR-Euskadiren helburua, gaia eta ardatza:

1. Sistematizazioaren HELBURUA: Zertarako sistematizatu?

Politikan eragina izateko lanari begira, etorkizuneko prozesuetan, CEAR-Euskadik zer kontuan hartu behar duen jakitea.

3. eranskinean jaso dugu zer eragin izan nahi duen CEAR-Euskadik politikan.

2. Sistematizazioaren GAIA: Zer esperientzia nahi dugu sistematizatu?


Genero-arrazoiengatiko jazarpenaren prozesua CEAR-Euskadiren Ekimen eta Parte-hartze Sozialeko Lantaldeak garatua Euskal Herrian 2005eko urtarrilaztik 2011ko azarorarte.

- Prozesu honek ondorengo 4 proiektu izan ditu:
 - "NO ENTRA: genero-arrazoiengatiko jazarpena bizi duten emakumeei asilo-eskubidea onartzea eskatzeko kanpaina" (2005-2007/2006).
 - "Genero-arrazoiengatiko jazarpena: asilo-eskubidearen eta sexu- eta ugalketa-eskubidearen arteko sinergiak" (2006-2008).
 - "Generoagatiko jazarpena eta asilo-eskubidea: testuinguru globaletik tokiko konpromisorara" (2008-2010).
 - "Ekintzarako informazioa: zer eginkizun dute zuzenbide arloko eragileek genero-arrazoiengatiko jazarpenaren arloan" (2011).
- 3. eranskinean jaso dugu nola definitzen duen CEAR-Euskadik dibertsitate sexualaren eta genero-nortasunaren ikuspegia. Ikuspegi hori oraindik sortzen ari bada ere, kontzeptualki lotuta dago genero-arrazoiengatiko jazarpenarekin, eta, horregatik, kontuan hartu dugu sistematizazio hau egitean.

3. Sistematizazioaren ARDATZA: Esperientziaren zer alderdi nagusi interesatzen zaizkigu batez ere?

Politikan eragina izateko lanean, subjektuen parte-hartzea/inplikazioa errazten edo oztopatzen duten elementuak.

- Elementuak: metodologiaren elementuez mintzatu ginen (prozesua, tresnak, esparru teorikoa...), bai eta testuinguruaz, errealitateaz eta eragile bakoitzaren ezaugarriez ere.
- 3. eranskinean jaso dugu nola definitzen duen CEAR-Euskadik parte-hartze soziala.
- Hainbat eragile. Eragile hauek:
 - Arlo juridiko-judizialean, arlo akademikoan eta GGKE arloan diharduten eragileak.
 - Xede-taldea: politikariak.
- 3. eranskinean jaso dugu zer eragin izan nahi duen CEAR-Euskadik politikan.



3. Historia gogora ekartzea. Galdera kritikoaren gida



Historia gogora ekartzeko, bi tresna erabili ditugu: bata, historiaren espirala, eta, bestea, ordenamendu-gida.

Historiaren espiralaren bidez, esperientzia hasi zenetik, hots, 2004ko abendutik, 2011ko urrira arte izandako une esanguratsuenak bildu ditugu.

la zazpi urte horietan, ondoz ondoko 4 proiektu egin genituen. Proiektuak elkarrekin lotuta zeuden, eta, batzuetan, proiektu bat amaitu aurretik, beste bat abian zen. Hona hemen proiektuak:

- "NO ENTRA: *genero-arrazoiengatiko jazarpena bizi duten emakumeei asilo-eskubidea onartzeko eskatzeko kanpaina*", 2005etik 2006ko uztaile arte.
- "*Genero-arrazoiengatiko jazarpena: asilo-eskubidearen eta sexu- eta ugalketa-eskubidearen arteko sinergiak*", 2006tik 2008ra arte.
- "*Generoagatiko jazarpena eta asilo-eskubidea: testuinguru globaletik tokiko konpromisora*", 2008tik 2010era.
- "*Ekintzarako informazioa: zer eginkizun dute zuzenbide arloko eragileek genero-arrazoiengatiko jazarpenaren arloan*", 2011n.

Jabetu gara urte horietan maiz egin zirela harremanak, itunak eta lankidetzak erakundeekin eta alderdi politikoekin, politikan parte hartu eta inplika zitezten. Hainbat elkargune antolatu genituen; esate baterako: jardunaldiak, mintegiak eta genero-arrazoiengatiko jazarpenari eta asilo-eskubideari buruzko I. Kongresua. Eusko Legebiltzarrean eta Diputatuen Kongresuan egindako lana ere aipatzekoa da.

Urte horietan guztietan, etengabe aritu ginen gai hauen oinarri teorikoak sortzen: asiloa eta generoagatiko jazarpena, ikuspegi feminista, LGBT ikuspegia eta SAGN ikuspegia.

Barne-testuingurua hots, erakundearena eta lantaldearena eta kanpo testuingurua hartu ditugu kontuan.

4. eranskinean jaso dugu egindako espirala.

Espirala egin ondoren, gogora ekarri ditugu parte-hartzeari eta politikan eragina izateari begira prozesuaren une jakin batzuetan izandako lorpenak eta zailtasunak:

1. Alderdi politikoak.
2. Beste gizarte-erakundeekin egindako bilguneak (GAJi buruzko 1. Kongresua, Sinergieiei buruzko Jardunaldiak eta 1. Kongresuaren aurretiko identifikazio-taldea).
3. Arlo juridikoa eta judiziala.
4. Mugimendu feminista.

Hori egiteko, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo-k proposatutako gida hau erabili genuen informazio biltzeko.

	Lorpenak	Zailtasunak	Oharrak
Parte hartzea			
Nahi izatea			
Jakitea			
Ahal izatea			
Prozesua (jarraitua eta etengabea)			
Genero-ikuspegia			
Kulturartekotasuna			
Politikan izandako eragina			
Prozesu zabala (epe luzea)			
Giza eskubideak defendatzea eta sustatzea			
Presio*			
Politikako, legegintzako eta gizarte-politikako egiturak eta botere-egiturak aldatzea			
Politikan eragina izateko ahalmena sendotzea			
Sareak eta aliantzak			

* Erakunde publikoei, organo erabakitzaileei eta botere-egiturei egiten zaien presioa.

CEAR-Euskadik definitu egin du zer den parte hartzea eta zer den politikan eragina izatea. Gida honetan, definizio horien elementuak sartu ditugu. Ikus gida osatua 5. eranskinean.

Historiaren espirala eta ordenamendu-gida egiten ari ginenean, galdera batzuk mahaigaineratu genituen, funtsezko hausnarketan eta analisi kritikoan sakontzeko. Galdera horiek antolatu eta galdera kritikoaren gida sortu dugu bost gai hauek ardatz hartuta:

A. Zer interes eta lehentasun dituzte subjektuek parte hartzeko? Nola kudeatu ditu CEAR-Euskadik interes eta lehentasun horiek?¹

1. Zer interes zituzten alderdi politikoen asiloarekin eta genero-arrazoiengatik jazarpenarekin (GAJ) lotutako gaietan inplikatzeko? Zer egin dugu interes horiei dagokienez? (metodologiari eustea, ardatzari jarraitzea).

¹ Batez ere, metodologiaren (prozesua, tresnak, esparru teorikoa...) eta errealitatearen elementuei buruzkoak eta inplikazioa errazten edo oztopatzen duten subjektuen ezaugarri buruzkoak. Hartu kontuan testuingurua ere.

2. Zer interes zituzten inplikatzeko/Zergatik inplikatu ziren **erakundeak lobby-taldean?** (Asiloa-generoa) Zer egin dugu interes horiei dagokienez? (metodologiari eustea, ardatzari jarraitzea).
3. Zer interes zituen **CEAR-Euskadik** beste pertsona batzuekin lan egiteko? Zergatik?
4. Nola hartu ziren kontuan pertsona guztien **lehenetasunak?** Bat etorri al ziren haien lehenetasunak eta CEAR-Euskadirenak? Zertan? Nola? (kontuan hartu GAJi buruzko 1. Kongresua eta kongresuaren aurretik egindako lan-saioa).
5. GAJi buruzko I. Kongresuaren zer alderdik bultzatu zituzten subjektuak parte hartzera? Eta ez parte hartzera?

B. CEAR-Euskadiren barne-alderdiak

6. Taldeko **persona berak** prozesua bideratu izanak erraztu egin al du parte hartzea/beste pertsonak politikan eragina izateko lanetan inplikatzeko? Zergatik? Nola?
7. Zer eginkizun dute CEARen eta CEAR-Euskadiren **arlotan** arlo juridikoen eta judizialen inplikatzeko edo ez inplikatzeko? Eta politikan eragina izateko prozesuetan?
8. Nola moldatu da CEAR-Euskadi prozesu honetan **proiektu-prozesu** dinamikarekin lan egiteko? (epe ertaineko/luzeko proiektuen mende egotea ekonomikoki).
9. Nahiz eta fondo publikoak jaso, bermatu al da gure independentzia politikan eragina izateko ekintzetan? Nola? Zergatik?

C. Esparru teorikoa

10. Zer eginkizun du **ikerketan** lanak politikan eragina izateko prozesuan? (erakundearen barruan nahiz kanpoan).
11. CEAR-Euskadiren **jarrera** politikoari eta estrategikoari dagokionez, zer ate ireki dira eta zer ate itxi? Zergatik?

D. Zeharkako hauek: genero-ikuspegia eta SAGN ikuspegia

Barne-alderdiak

12. CEAR-Euskadiren barruan, emakumeak izan dira prozesuaren buru. Izan al du horrek eraginik beste pertsonen parte hartzean/inplikazioan politikan eragina izateko lanari begira? Zergatik? Nola?

Esparru teorikoa


13. SAGN ikuspegiari dagokionez, zer ikasi dugu aliatutako pertsonen buruz?

Inplikazioa eta parte-hartzea

14. Nola zaindu ditugu prozesuan zehar pertonekiko **harremanak eta afektibitatea**? (Inplikatzeko eta parte hartzeko garrantzitsua izan dela jotzen dugu. Zergatik izan den garrantzitsua?).
15. Pertsona batzuen parte-hartzea lortzeari begira, lagungarri edo oztopo izan al da **genero-ikuspegia**? Nola?

E. Testuingurua

16. Zer eginkizun izan du testuinguruak prozesuan?



4. Ondorioak, irakaspentak eta gomendioak (OIG)



Atal honetan bildu ditugu sistematizazio-prozesuko hausnarketaren, analisi kritikoaren eta iritzien ondorioak, irakaspenak eta gomendioak (OIG).

Ondorioetan, hausnarketa orokorrak bildu ditugu, esperientzia jakinetatik eta galdera kritikoei emandako erantzunetatik pixka bat harago doazenak.

Irakaspenak ideiak dira. Gure esperientziatik eta jardunetik jasotzen ditugu, eta hobetzeko erabiltzen. Galdera honen erantzunak dira: zer ikasi dugu?

Azkenik, aztertutako guztiaren bidez, gomendio batzuk egin ditugu beste pertsona eta erakunde batzuentzat, gaur egun egiten ari diren lanean edo etorkizunekoan erabil ditzaten, baldin eta haien esperientzia CEAR-Euskadik izan duenaren antzekoa bada.

Bost gai hauen inguruan antolatu ditugu:

- 4.1. Subjektuek zer interes eta lehentasun dituzten parte hartzeko, eta nola kudeatu dituen CEAR-Euskadik interes eta lehentasun horiek.
- 4.2. CEAR-Euskadiren barne-alderdiak.
- 4.3. Esparru teorikoa.
- 4.4. Zeharkakoak: genero-ikuspegia eta SAGN ikuspegia:
 - Barne-alderdiak.
 - Esparru teorikoa.
 - Inplikazioa eta parte-hartzea.
- 4.5. Testuingurua.

4.1. Subjektuek inplikatzeko dituzten interesak eta lehentasunak: horiei buruzko OIG, eta nola kudeatu dituen CEAR-Euskadik²

1. Zer interes zituzten alderdi politikoek asiloarekin eta genero-arrazoiengatiko jazarpenarekin (GAJ) lotutako gaietan inplikatzeko? Zer egin dugu interes horien inguruan?

Ondorioak

- Alderdi politikoek irabazkin politikoak eskuratzen dituzte asiloarekin eta GAJekin lotutako gaietan inplikatzeko; dena den, asiloak gizarte-ikusgaitasun gutxi duenez, irabazkin gutxi eskuratzen dituzte.
- Alderdi politikoekin jardutean, kontuz jokatu behar dugu alderdi politiko jakin batekin identifika ez gaitzaten. Hori funtsezkoa da gure independentziari eusteko, bai interes elektoralistei eta alderdikoiei men ez egiteko ere. Garrantzitsua da alderdi politikoek zer jarrera eta iritziz dituzten jakitea, haiekin noraino iritsi gaitzkeen ikusteko.
- Alderdi politikoekiko harremanei dagokienez, urratsak egin behar ditugu kultura politikoa aldatzeko, etsaitutako sektoreak izan ez gaitezen. Batzuetan, aurre egin behar da, eta, beste batzuetan, elkarrekin hitz egin eta negoziatu. Badaude giza eskubideak hobetzeko ahalmena eta benetako interesa duten pertsonak eta alderdi politikoak. Ikusi dugu GAJi buruz ditugun planteamenduek haien politikan eragina izan dutela. Garrantzitsua da alderdi politikoekin barruko aliantzak identifikatzea eta gutxieneko eskakizunak soilik betez lan egin ahal izatea.

Alderdi politikoekin jardutean, bateragarriak dira borroka egitea eta hitzarmenak egitea, bai eta aurre egitea eta hitz egitea nahiz negoziatzea ere. Hori dela eta, bereizi egin behar da bat etortzea eta bat ez etortzea, eskandalizatu gabe.
- Parlamentuan ekimenak egiteko, eraginkorragoa da lobby-taldea osatzea edo sarean lan egitea.^{**3}
- Ezinbestekoa da parlamentuan egindako aldarrikapenei eta salaketei jarraipena ematea.
- Alderdi politikoek erantzun ona eman zioten generoaren gaiari; izan ere, gaia modan zegoen, eta, alderdi politikoak bila zebiltzan irabazkin politikoak lortzeko modu bat zen. Alde horretatik, generoaren gaiak begi-bistan jartzen du asiloaren kontua, bai eta alderdi politikoentzat ere. Zuzentasun politikoa dela-eta inplikatzeko dira alderdi politikoak GAJi lotutako gaietan, ez giza eskubideak betearazteko interesa dela eta.

² Batez ere, metodologiaren (prozesua, tresnak, esparru teorikoa...) eta errealitatearen elementuei buruzkoak eta inplikazioa errazten edo oztopatzen duten subjektuen ezaugarriei buruzkoak. Hartu kontuan testuingurua ere.

³ Bi izartzoren bidez adierazi ditugu ondorioak, irakaspenak eta gomendioak; alderdi politikoei ez ezik, lobby-taldearen erakundeekin izandako esperientziari ere aplikatu diezazkiokegunak.

Irakaspenak

- Euskarriak bilatu behar ditugu. Ez dugu zertan sare bat sortu; bai, ordea, pertsona jakin batzuek osatutako talde bat. Beharrezkoa da aliantzak egiten jarraitzea, egin-dako aliantzak sendotzea eta eragile berriak kide egitea.**
- Hainbat pertsonekin lan egitean, komeni da haiekiko independenteak izaten jarraitzea. Interesgarria da gutxieneko eskakizunak soilik betez lan egin ahal izatea. Hori dela eta, eragileen interesak zein diren jakin behar dugu: gure interesak, sareko kideenak, alderdi politikoarenak. Halaber, garrantzitsua da jakitea erakundeetako eta alderdi politikoetako zer pertsonekin jardun dezakegun. Subjektuen interesak izan ohi dira prozesu jakin baten alde egiteko abiapuntua. Pertsona batek jarri ohi du gaia mahai gainean. Hori dela eta, funtsezkoa da pertsona horiek identifikatzea.**
- Bermatu egin behar dugu ekintzak unean unekoak ez izatea besteei hala iruditu arren; prozesu baten parte izan behar dute.
- Jabetzen gara generoaren gaia modan dagoela. Horregatik, gai horren inguruan lanean jarraitzeko, alde aurretik erabaki beharko da zer estrategia erabili gaiak modan egoteari uzten dionean.
- Kontuan hartuta (barnean nahiz kanpoan) krisialdian gaudela, arreta handiz jardun behar dugu; izan ere, gu alderdi politiko jakin batekin ez identifikatzeko egin beharreko lana oso zaila da (fondoak biltzearen eta finantzazioaren gaiek eragina izan dezakete prozesu politikoetan).
- Bi hauen arteko dikotomia gorde eta sendotu behar dugu: (i) eragina eta harreman diplomatikoak, eta (ii) borroka eta konfrontazioa.
- GAJ prozesuaren bidez, Eusko Legebiltzarreko eta Diputatuen Kongresuko alderdi politikoekin harremanetan jartzeko bide formalak eta informalak (aliantzak) zein diren ikasi dugu.

Gomendioak

- Estrategiak egitean, malgutasunez jokatzeko. Kontuan hartzea zer interesek bultzatzen dituzten alderdi politikoak parte hartzerako. Testuingurura egokitzea.
- Alderdi politikoekin harremanetan jartzeko bideak eta parlamentuan (autonomietakoak nahiz estatuetakoak) ekimenak egiteko tresnak ikertzea.
- Lobby-taldeekin lan egitea, sareak sortzea. Horretarako, oso argi izatea zein diren gutxieneko eskakizunak (eskakizun horiek izan daitezke sarearen oinarri). Gogoan izatea eskakizun horiek ugaritu soilik egin daitezkeela, eta, ez gutxitu.**
- Borroka egiteko eta eragina izateko prozesuak uztartzea: lobby egiteak ez du zertan despolitizatu. Gaiaren eta testuinguruaren arabera, bateragarria izan daiteke borroka egitea eta mahai baten inguruan esertzea.

2. Inplikatzeko interesak/Zergatik inplikatu dira erakundeak lobby-taldean (Asiloa-generoa)? Zer egin dugu interes horien inguruan?

Ondorioak

- Generoaren, emakumeen aurkako indarkeriaren, LGBT pertsonen gaiak batu gaitu; lobby-taldean inplikatzeko, erakunde guztiek interes berberak genituen gai horien inguruan. Inplikatu izana hertsiki lotuta dago norbanakoaren interesarekin, interes profesionalarekin eta erakundearen interesarekin.
- Erakundearen interesari dagokionez, hiru gauza izan ditugu kontuan:
 - Malgutasuna: pertsona jakin batzuk parte harrarazteari eta beste erakunde batzuekin lan egiteari dagokionez, oso positiboa izan da malguak izatea.
 - Pertsonengana hurbiltzeko astia hartzea: giltzarriak izan dira, batetik, pertsonekin CEAR-Euskadiren bidez jartzea harremanetan, eta bestetik, astia hartzea prozesua

banan-banan modu zehatzean azaltzeko are gehiago, prozesuak aurre egin ahala. Beste erakunde batzuekin lan egiteko, ezinbestekoa da elkar aintzatestea.

- Beste erakunde batzuekin lan egiteko, oso garrantzitsua izan da modu sistematikoan eta jarraituan lan egitea, denbora kontuan hartuta, betiere. Nahiz eta pertsona batek une jakin batean ekintza jakin batzuk egin, prozesuan inplikaturik dago; besteak beste, informazioa jaso duelako.

Irakaspenak

- Garrantzitsua da erakunde guztiak lotzen dituen ildo edo interes bat bilatzea. Kasu honetan, generoaren gaia izan da.
- Beste erakundeek mahaigaineratzen dituzten interesak kontuan hartzeko prest egotea. Gure kasuan, Aldarte elkarteari esker, LGBT ikuspegia sartu genuen prozesuan.
- Malgu jokatzeko denborarekin eta gainerako eragileen konpromisoekin.
- Astia hartzea egoteko eta deialdiak egiteko. Kontua ez da produktuak eskuratzea soilik.
- Prozesuari begira lan egitea. Besteek ere argi ikus dezatela hori.
- Parte hartuko ez dutela esaten dutenekin bizitzen ikastea; horrek sor diezagukeen frustrazioa gainditzea. Besteak beste, elkar ez ezagutzea eta antzeko interesik ez izatea izan daiteke "ez" esatearen arrazoiak. Ez larritu horregatik.
- Erakunde batek "ez" esateak ez du esan nahi erakunde guztiek "ez" esango dutenik. Mugimendu feministan edo LGBT mugimenduan elkarte bat baino gehiago daude. Ez dago besteak baino benetakoagoa edo aldeztaille sutsuagoa den erakunderik. Gai bakoitzean, hainbat erreferente daude. Erakundeak ez dira unibertsal bihurtu behar.

Gomendioak

- Malgu jokatzea.
- Astia hartzea pertsonekin harremanak egiteko, taldea sortzeko.
- Nahiz eta sare bat sortu, lan egin pertsonekin banan-banan.
- Bilatu batzen zaituzten hitza, interesa.
- Jakin nolakoak diren erakunde guztiak, eta, hartu berdintzat.
- Jakin zein diren jardute-eremuko elementu guztiak.
- Landu prozesua.
- Eman informazioa etengabe pertsoneri eta erakundeei.
- Egon prest beste proposamen batzuk kontuan hartzeko. Partaideak izan daitezela partaide aktiboak.
- Sortu sinergiak eta hartu-emanak prozesuan.

3. Zer interes du CEAR-Euskadik beste pertsona batzuekin lan egiteko?

4. Nola hartu dira kontuan pertsona guztien lehentasunak? Bat etorri al dira haien lehentasunak eta CEAR-Euskadirenak?

Ondorioak

Hona hemen CEAR-Euskadik beste pertsona batzuekin lan egiteko dituen arrazoietako batzuk:

- Asiloaren gaia politikarien agendetan eta beste eragile batzuen lan-agendetan sar dezaten bultzatzea.
- GAJ arloan egindako lana legezkotzat jotzea. Indar handiago izateko eta konbentzigarriagoak izateko, ahalik eta jende gehien inplikatzeko dugu xede.

- Gure lana osatzen duten arloetan egindako lanetik ikastea. Esate baterako, kontuan hartzea nola sartu den LGBT ikuspegia pixkanaka-pixkanaka.

CEAR-Euskadi moldatu egin da besteen lehentasunak kontuan hartzeko:

- Erakunde den aldetik zer muga dituen jakitea, eta, beste talde batzuek muga horiek gainditzen lagun diezaioketela jakitea. Eragile interesgarriak eta interesatuak bilatu ditugu kide izan daitezzen; ez ditugu kideak hartatik egin. Partaideen artean ez da ia errefuxiatuik edo etorkinik egon, ez eta haien erakunderik ere. Horren arrazoia da zailtasun handiak izan ditugula interes komunak aurkitzeko:
 - Zaila da GAJekin lotutako bizipenak izan dituzten pertsonak aurkitzea.
 - Zaila da profil politiko egoki bat lortzea. Ez genuen nahi pertsona batek bere lekukotasuna ematea soilik.
 - Zaila da prozesuaren helburuak eta errefuxiatu batzuen interesak bat etorraztea; izan ere, errefuxiatuen bizipenek baldintzatu egiten dituzte haien interesak.
 - Ez genituen nahi prozesuari kolorea soilik ematen zioten partaideak.
 - CEAR-Euskadi bideak ari da ezartzen orain errefuxiatuek politikan parte har dezaten. Egin ahala ikasiko dugu prozesu horri buruz.
- GAJi eta asilo-eskubideari dagokionez, CEAR-Euskadik bere helburuak eta lanildoak partekatu ditu, eta, gainerako erakundeei horien berri eman die. CEAR-Euskadik erakunde horien ekarpenak aintzatesten ditu, eta, jabetzen da haien lana garrantzitsua dela prozesuan aurrera egiteko.
- Gutxieneko komun argi batzuk ezarri ziren. Partaide guztiek zuten haien berri. Konpromisoak hartzeko abiapuntu izan ziren.
- GAJen arloan lan egin duten erakunde eta pertsona guztien ekarpena aintzatestea. Eraikuntza kolektiboa izan da helburua. Hori dela eta, prest egon gara kontuan hartzeko beste erakundeen ekarpenak, haien esperientzietan oinarritutakoak. Prozesu honetan, irakaspenak entzun eta aplikatu ditugu, CEAR-Euskadiren gutxieneko eskakizunak ahaztu gabe, betiere.
- Funtsezkoa izan da beste erakundeekiko harremanak zaintzea. Halaber, harremanak eta gizatiartasuna oso garrantzitsuak izan dira.

Irakaspenak

- Garrantzitsua da ikasteko prest egotea, ideia berriak aplikatzea, gure mugez jabetzea eta guk ez dakigunari buruz dakien jendea izatea teoriak taldean eratzeko.
- Hartu astia partaideak ezagutzeko. Egon beti prest beste pertsona batzuk prozesuan sartzeko; batez ere, errefuxiatuak eta etorkinak, bai eta haien erakundeak ere.
- Garrantzitsua da zehatz-mehatz definitutako estrategia bat izatea.
- Prozesua oso teorikoa izan da. Gehiago hartu behar da kontuan tokian tokiko egoera eta errefuxiatuek nahiz etorkinek bizi duten egoera.
- Funtsezkoa da gizakion arteko harremanak zaintzea.

Gomendioak

- Definitu estrategiak argi eta garbi.
- Identifikatu partaideak eta aztertu behin eta berriz identifikatutako ezaugarriak.
- Izan dadila goxoa erreferentziako pertsona.
- Ez itxi edukiak. Prozesuak aurrera egin ahala, aberastu gaiak besteek dakitenarekin.
- Erreparatu inguruari, lan egin tokian tokiko egoerak kontuan hartuz eta sartu errefuxiatuak eta etorkinak prozesuan.

5. GAJi buruzko I. Kongresuaren zer alderdik bultzatu zituzten subjektuak (guk zuzenean parte hartzera deitu ez genituenak) parte hartzera?

Ondorioak

I. Kongresuaren zer alderdik bultzatu dute parte hartzea. Giltzarri batzuk

- Errealitatea gero eta anitzagoa izaki, GAJek eta migrazioak parte hartzera bultzatu ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arloko erakunde publikoak eta elkarteak.
- Ekitaldiaren lekuak eta izaera magistralak partaide jakin batzuk erakarri zituen; ez zirudien "GKE" batek antolatu zuenik, eta, horregatik, hainbatek "aurreiritziak" izan zituen. Zenbait pertsona ez ziren etorri, baina, halere, inoiz baino jende gehiago etorri zen.
- Ekitaldiak interes-taldeetara egokitu behar dira, eta, kasuaren arabera, modu batera edo beste batera antolatu beharko dira, leku batean edo beste batean.
- Garrantzitsua da dena delako gaian adituak diren pertsonak parte hartze. Horrez gainera, marketin-estrategia bat bilatu behar da; esate baterako: kongresuari "I." Kongresua esan genion.

I. Kongresuaren zer alderdik ez dute bultzatu parte hartzea. Beste giltzarri batzuk

- Erakunde eta gizarte-mugimendu guztiek ez dute atsegin ekitaldiek kutsu formala izatea. Baliteke batzuei kongresuaren izaera magistrala, ez parte-hartzailea eta "seriotasuna" ez gustatu izana.
- Arlo juridikoa beste arloak baino endogamikoagoa da (gauzak bere arlotik antolatzea atsegin du), eta, prestakuntza praktikoa jasotzea eskatzen du, bere prozeduratarako "baliagarria" izango dena.
- Jardunaldi mota bakoitzak talde edo kolektibo jakin bat erakartzen du. Gauza orokorrak eta espezifikokoak batzeko modua aurkitu behar da.
- Erakundeen endogamia ("gure erakundearekin lotura duten gauzak besterik ez zaigu axola") gainditzea da gure erronka. Gehiago hausnartu eta landu behar dugu hori.

Irakaspenak

- Ekitaldien deialdiak arrakasta izan dezan, funtsezkoa da formatua zaintzea. Hautatu oso formalaren eta informalaren arteko formatuak.
- Erabili hainbat formatu beste arlo batzuk erakartzeko. Beharrezkoa da dosifikatzea. Antolatu jarduera orokorrak (esate baterako, GAJi buruzko I. Kongresua), eta, antolatu jarduera horren barruan beste formatu batzuk dituzten ekimenak (esate baterako, lan-taldeak, gai jakin batzuk lantzeko lantegiak).
- Kongresua edo dena delako "produktua" prestatzea bezain garrantzitsua da hari buruzko informazioa zabaltzea. Ordu asko eskaini behar zaizkio.

Gomendioak

- Jakin zer interes orokor eta espezifiko dituzten xede-taldeek, lehenetsi nork parte hartzea nahi dugun eta, horren guztiaren arabera, erabaki zer ekitaldi mota egin.
- Eman garrantzia ekitaldiei buruzko informazioa zabaltzeari.

4.2. CEAR-Euskadiren barne-alderdiei buruzko OIG

6. Taldeko pertsona berak prozesua bideratu izanak erraztu egin al du parte hartzea/beste pertsonak (CEAR-Euskadikoak ez direnak) politikan eragina izateko lanetan inplikatzeko?

Ondorioak

- Nahiz eta taldeko pertsona bera prozesuaren buru izatea garrantzitsua izan, ez da ezinbestekoa partaideak politikan eragina izateko lanetan inplikatzeko eta parte hartzeko.
- Barrutik ikusita, eginkizun hori hartzeak galarazi egiten du beste gauza batzuk egitea. Edonola ere, etengabe ikastea dakar, bai edukiei buruz, bai partaideei buruz. Eginkizun hori hartzen duenak gaien ikuspegi orokorra du; prozesuaren memoria historikoa da. Hari esker, estrategia eta metodologia gehiago egongo dira.
- Tresnak sortu behar dira erakundearen barruan informazioa elkartrukatzeko; izan ere, ikasitako gauzak besteei jakinarazi behar dizkiegu.
- Kanpora begira, garrantzitsua da erakundeekin batez ere, alderdi politikoekin harremanetan aritzen den pertsona beti bera izatea; izan ere, erreferentea izango da, eta, hark ahalbidetuko du elkarrizketa, konfiantza, hizkuntza bateratua eta sareko pertsonak nahiz erakundeek elkar ezagutzea. Hark emango dio prozesu- eta jarraitutasun-kutsua. Era berean, garrantzitsua da haren atzean erakundearen estrategia bat dagoela erakustea eta ez pertsonalizatzea.

Irakaspenak

- Prozesuak irauten duen artean, garrantzitsua da erreferentziako pertsona bat egoitea, konfiantza sortzeko, elkar ezagutzeko, hizkuntza bateratu bat ezartzeko, etab. Horrek sendotu egingo du prozesua barrutik zein kanpotik.

- Garrantzitsua da prozesua bideratzen duen erreferentziako pertsonak prozesua erakunde-estrategia bat dela ulertarazi ahal izatea kanpoko eragileei. Halaber, funtsezkoa da informazioa erakunde barrura eramatea eta bertan elkartrukatzea.
- Testuingurua zela eta, pertsona bera izan zen prozesuaren buru urte horietan. Dena den, ez dugu uste CEAR-Euskadik gaur egun hori bera egin dezakeenik; izan ere, taldean hainbat eragin-prozesu ditugu abian. Nola bana dezakegu lana CEAR-Euskadin pertsona bakar bat izan dadin prozesu jakin baten buru prozesuak irauten duen artean?

Gomendioak

- Prozesu luzeetan, garrantzitsua da pertsona bat izatea buru, beste pertsonekin eta erakundeekin komunikatzeko eta erakunde barruko komunikazioa bideratzeko.
- Onuragarria da besteekin hitz egiten duen pertsona gaiari buruz gehien dakiena izatea eta prozesuan erabakiak hartzeko eskumena izatea; hots, prozesuaren buru izatea.
- Oso garrantzitsua da epe luzera planifikatzea, prozesuak orekatzeko eta jarraitutasuna emateko.

7. Zer eginkizun izan dute CEAREN eta CEAR-Euskadiren arlo juridikoei (a) arlo juridikoak eta judizialak inplikarazteko edo ez inplikarazteko eta (b) politikan eragina izateko prozesuetan?

Ondorioak

- CEAR-Euskadiren eta CEAREN arlo juridikoei badakite zer bideren bidez iritsi arlo juridiko eta judizialera. Harreman pertsonalak oso garrantzitsuak izan dira arlo horiek inplikarazteko (oraingoz oso gutxi inplikatu dira).

- Ez dugu planifikatutako estrategiarik izan arlo juridikoek bide horiek ezagutaraz ditzaten, ez eta politikan eragina izateko prozesuetan inplika daitezten ere. Inplikazio pertsonala dela-eta hartu dute parte. Pertsona-giltzarriak identifikatzea baliagarria izan da; horrek, baina, ahuldu egin du barne-estrategia. Hau da, pertsona horiek izatea baliagarria izan da prozesua aurrera eramateko, baina ez da estrategiarik eta barne-prozesurik sortu.
- Garrantzitsua da talde juridikoek eta eragin eta parte-hartze sozialeko taldeek lan estrategiko gehiago egitea. Erakunde barruan, oso zeregin garrantzitsuak ditugu: eragina izateko informazioa bildu behar dugu eta estrategia partekatuak finkatu behar ditugu.
- Arlo juridikoan egindako lana mugatua izan da. Eguneroko lana sistematizatu behar da, gizarte-sareak erabili behar ditugu eta eraginkortasun handiagoz jokatu behar dugu errefuxiatuek eta etorkinek bizi dituzten giza eskubideen urraketeki lotutako gertakari larriak eta "txikiak"⁴ jasotzeko.

Irakaspenak

- Lanean jarraitu behar dugu arlo juridikoaren eta eragin eta parte-hartze sozialaren artean estrategia formal bat sortzeko, lankidetzaz ez dadin egon borondate onaren mende soilik. Estrategia sortu ondoren, bideak eta mekanismoak sortu behar dira abian jartzeko.
- Hona hemen ozen adierazitako zalantza bat: balioetsi zenbaterainoko aldaketa ekartzen duen arlo juridikoak CEARetik kanpo: eragin eta parte-hartze sozialeko taldeko kideok lan handia egiten dugu arlo hori inplikarazteko, guk egiten dugun lana bezain handia al da arlo horrek dakarren aldaketa? Asiloa kuantitatiboki txikia denez, agian hobe da CEAREN arlo juridikoan biltzea gogoan. Bestalde, jabetzen gara garrantzitsua dela arlo juridikoak asiloaren berri izatea eta norengana jo jakitea. CEAREN arlo juridikoek dute ahalmena gaiari egunerokoan eusteko. Abokatuek, CEAREkoek nahiz kanpokoez, eragin-ahalmen handiagoga dute guk baino. Elkarrekin lan egin behar dugu.

⁴ Hona hemen gertakari "txiki" batzuk: Barajaseko egoera eta estatistikak; ezkutuko bidaiariak; gizakien salerosketa kasuetan, berrezartzeko eta hausnartzeko epea ukatzea; kanporatze-prozedurak hastea prozedura azkarraren bidez, nahiz eta legearekin bat ez etorri; ezezko epaien paragrafo lotsagarriak... Horiek guztiak bildu beharko lirakeke gure administrazioak errefuxiatuei benetan zer-nolako tratua ematen dien ikusteko.

- Erakundeak inplikatu behar ditugu eragin-prozesuetan.
- Baliagarria da publikoaren aurrean dauden erakunde-buruek genero-diskurtsoa izatea.

Gomendioak

- Erabili partaideen interesetara egokitutako metodologia (lantegiak, ikastaroak, etab.).
- Identifikatu erakundearen barruan zein diren pertsona eraldatzaileak eta militante sutsuenak, eta, egin hobeto planifikatutako estrategiak arloen artean, inplikazioa ez dadin pertsonen borondate onaren baitan soilik egon.
- Izan arlo juridikora iristeko bideak. Arlo horren barruko aliantzak beharrezkoak dira.
- Inplika dadila zuzendaritza politikan eragina izateko lanetan.
- Sortu estrategiekin bat datozen diskurtso publikoak.

8. Nola moldatu da CEAR-Euskadi prozesu honetan proiektu-prozesu dinamikarekin lan egiteko? (epe ertaineko/luzeko proiektuen mende egotea ekonomikoki).

Ondorioak

- Finantza-mendekotasunak ez du eraginik izan prozesuaren koherentzian. Alde horretatik, prozesuaren koherentzia argi eta garbi gelditu zen hasiera-hasieratik. Honi guztiari esker kudeatu ahal izan ditugu aldi berean epe luzeko prozesu zabal bat eta proiektu finantzagarririk:(i) EPS lantaldearen eta erakundearen apustu politikoa, (ii) plangintza estrategikoa eta (iii) gure lantaldeak duen autonomia handia.
- Denbora asko eskaini diogu proiektuak identifikatzeari. Proiektuak elkarri lotuta egon dira; malgu jokatu dugu. Proiektuak identifikatzeko lanetan, inplikaturako partaideek prozesua indartzen zuen etengabeko ikaskuntza-dinamika batean parte hartu dute.

Irakaspenak

- Malgutasuna izan da gakoa. Egokitu egin gara eta prozesuan inplikaturako gainerako pertsonen eta erakundeen ekarpenak bildu ditugu.
- Bere baitan hainbat proiektu dituen prozesu batek hainbeste denbora iraun dezan, eta, independentea izan dadin, funtsezkoa da erakundearen strategiaren parte izatea.
- Halaber, garrantzitsua izan da astia hartzea partaideekin lan egiteko eta haiekin sinergiak finkatzeko proiektuaren barruan. Alde horretatik, proiektu bat abiarazi genuen sinergiak identifikatzeko, eta, bilgune bat antolatu genuen GAI buruzko I. Kongresuaren aurretik. Funtssezkoa izan da berriro hastea identifikazio-prozesuak egiteko bilerak egiten, bertan prozesuaren norabideari buruz hitz egiteko partaideekin.

Gomendioak

Beharrezkoa da

- Espazio bat sortzea, erabakitzeko ea prozesua/proiektua erakundearen apustu politiko bat den. Zuzendaritza inplikaraztea.
- Astia hartzea estrategiak identifikatzeko eta partaideak identifikatzeko prozesuak egiteko.

9. Nahiz eta fondo publikoak jaso, bermatu al da gure independentzia politikan eragina izateko ekintzeta?

Ondorioak

- Zuhurtziaz jokatu dugu alderdi politikoekin izandako harremanetan: argi izan dugu zein zen gure helburua; bagenekien zein zen testuingurua; eta une bakoitzerako estrategiarik onena lehenetsi dugu. Egokia izan da alderdi politiko guztiekin hitz egitea, nahiz eta jakin horietako batzuek ez zituztela gure iritzi berberak.
- Asiloa Estatuaren eskumena izatea eta tokiko arazoetan eragin handirik ez izatea baliagarria izan da Euskadiko politikan eragina izateko eta, aldi berean, independente izaten jarraitzeko. Horretarako, CEAREk Estatuako politikan duen ahalmenaz baliatu gara.
- EAEko diru-laguntzek, haien formatua dela eta, "askatasunez ekitea" eta "independentzia politikoari eustea" ahalbidetzen dute. Epe luzearako biurteko finantzazio-lerroetan eskatu ditugu diru-laguntzak.
- Bizi dugun "krisialdiak" aldatu egingo ditu politikarien iritziak eta eragina izango du aliantzetan.

Irakaspenak

- Alderdi politikoekiko independentziari eusteko, lagungarria da epe ertaineko eta luzeko helburu garbiak izatea, testuingurua zein den jakitea eta erabakitzea noiz egin behar diren hitzarmenak, noiz egin behar den aurre eta noiz eseri behar garen alderdi guztiekin, zuhurtziaz eta kidetasunei gailentzen utzi gabe, betiere.

Gomendioak

- Ez autozentsuratu finantzazioa lortzeko. Finantzazioa eragozpena izan daiteke, edo ez.

4.3. Esparru teorikoari buruzko OIG

10. Zer eginkizun izan du ikerketa-lanak politikan eragina izateko prozesuan (erakunde barruan eta kanpoan)?

Ondorioak

- Ikerketa funtsezko tresna bat da politikan eragina izateko prozesuetan. Ikerketak tokiak izan du GAJ prozesu osoan. Batzuetan, nahiz eta ez konturatu, ikertzen ari ginen.
- Egin beharreko ikerketa kulturantzuna eta faktore askokoa izan behar da, eta, ez du arreta jarri behar guk egiazkotzat hartzen dugun errealitate itxi batean soilik; izan ere, esperientzia hori gurea besterik ez da. Ez orokortu gure gertuko errealitatea.

- Erakunde barruan, zorrotz ikertzea onuragarria da errealitatea hobeto ebaluatze-ko eta, horrela, politikan eragina izateko prozesu zehatzagoak eta eraginkorragoak egiteko. Kontrastatutako edukiak eta datuak erabiltzeak jantzi egiten gaitu. Beharrezkoa iruditzen zaigu gizarte-ikerketarako metodologietan trebatzea.
- Kanpora begira, ikerketak datuak ematen dizkigu eta indarra nahiz legitimitatea ematen die aldarrikapenei, eta, horrez gainera, eragina izateko erabiltzen ditugun argumentuei pisua ematen die. Ikuspegi parte-hartzailea garrantzitsua da eraikuntza kolektiboa bideratzeko.
- Arlo bakoitzean inplikaturako partaideen identifikazioa eta parte-hartzea funtsezkoa izan da ikerketa egiteko, bai eta esparru teorikoa eratzeko ere. Ikerketaren bidez, proiektu, lan-lerro eta partaide berriak aurkitu ditugu.
- Ez da behar adina landa-lana egin errefuxiatuekin eta etorkinekin, ez eta haien erakundeekin ere. CEAR-Euskadiko arlo juridikoak eta gizartean esku-hartzeko arloak egindako ekarpena egituratuagoa izan behar da.
- Ikerketak barne-hausnarketa egitera bultzatu gaitu, bai eta ezagutzak berriro aztertzerare, eta lagungarria izan da beste prozesu batzuentzat; batez ere, generoaren gaierekin lotutako prozesuarentzat.
- Aldatzeko tresna bat da ikerketa. Ez da ikertzeagatik ikertu behar.
- Ikerketari esker, esparru teoriko aparta egin dugu.

Irakaspenak

- Garrantzitsua da estrategiaren parte izatea ikerketa.
- Ikerketa egitea baliagarria da kanpokoek legitimotzat har gaitzaten.
- Hauxe da gure erronka: nola atera etekina pertsona eta errealitate zehatzekin tokian dugun esku hartzeari?
- Identifikazio egokiak partaide inplikatuak dakartza. Garrantzitsua da ikerketa parte-hartzailea egiten jarraitzea, partaideak esparru teorikoa egiteko lanetan inplikatur.
- Ikerketa-prozesuaren bidez ikasitakoa erakunde barruan zabaltzen jarraitu behar dugu.
- Beharrezkoa da gizarte-ikerketarako metodologietan trebatzen jarraitzea.


Gomendioak

- Ikerketa sartzea eragin-estrategian, strategiarentzako tresna baten modura, eta, beharrendaren arabera egitea prestakuntza.
- Funtsezkoa da datuak izatea eta zorrotz jokatzeta. Horrela, errealitatea asmatzea saihestuko dugu.
- Ikerketaren emaitzak erakunde barruan eta handik kanpo zabaltzea.
- Beste partaideek eta pertsonak dakitena balioestea. Ikerketa parte-hartzaileak sustatzea.

11. CEAR-Euskadiren jarrera politikoari eta estrategikoari dagokionez, zer ate ireki dira eta zer ate itxi?

Ondorioak

- Gizarte-mobilizazioari dagokionez eta ez teoriari dagokionez, CEAR-Euskadiren pentsamoldea ez da sistemaren aurkako pentsamolderik muturrenetakoa.



- Planteamendu politiko eta estrategikoa baliagarria da arlo politikora eta instituzionalera iristeko, bai eta gizarte-mugimendu batzuetara iristeko ere (beste batzuk, muturrekoenak, kanpoan gelditzen dira). Politikan izan nahi dugun eragina oso zabala da.
- CEAR-Euskadiren irudi publikoa aldatu egin da: zuzendaritzaren jarrera politikoa ez ezik, Garapenerako Hezkuntzako lana ere hor dago, eta, beste ate batzuk ireki dira. Zuzendaritzak egindako lan historikoari esker, administrazioa eta erakundeak bat datoz CEAR-Euskadirekin.
- GAJ prozesuari esker, eragile batzuek legitimotzat hartu gaituzte. Eragile horiek ez gintuzten identifikatzen politikan eragina izateko prozesuekin, ez eta ikuspegi feminista oinarri duten salaketak egiteko prozesuekin ere.
- Alde batetik, jarrera politikoa eta ideologikoa dago, oso argia dena; eta bestetik, estrategia, bi alderdi hauek bateratzen dituena: bat, erakundeekiko harremanak, eta bi, ekintza politiko zuzena. Garrantzitsua da jarrera politiko argia izatea, jarrera hori adieraztea eta besteek horren berri izatea.

Irakaspenak

- Jarrera politiko bat izan dezakegu, eta, aldi berean, hainbat estrategia, testuingurua-
ren eta beste elementu batzuen arabera.
- Beharrezkoa da beste partaideekin harremanak izatea, eta konturatzea partaide
bakoitzak eginkizun jakin bat izan dezakeela lortu nahi dugun aldaketa lortzeko. Hori
dela eta, hainbat partaidek bultzatutako estrategia ezberdinak batera ditzakegu.
- Erakundeak ikasi egin du: gai izan da aldatzeko eta Garapenerako Hezkuntzako lana-
ren bidez ikasteko. Prozesu honetan, asko izan dira guri lagundu eta prozesu osoan
inplikatu diren partaideak.

Gomendioak

- Jarrera politiko eta estrategia argiak izatea: erakunde barruan haien berri izatea eta
kanpoan zabaltzea.
- Nahiz eta kontraesankorra iruditu, bi estrategia hauetan lan egiten jakitea: (i) alderdi
politikoekin hitz egitea eta negoziatzea, eta (ii) "barrikadetan egotea".
- Estrategiak testuingurura egokitzeko gaitasuna izatea, helburua eta jarrera politikoa gal-
du gabe. Gutxieneko eskakizunei eustea. Ezin dugu edozer egin finantzazioa lortzeko.

4.4. Zeharkako hauei buruzko OIG: genero-ikuspegia eta SAGN (dibertsitate sexuala eta genero-nortasuna) ikuspegia:

Zeharkakoak: barne-alderdiak

12. CEAR-Euskadiren barruan, emakumeak izan dira prozesuaren buru. Izan al du horrek eraginik beste pertsonen parte hartzean / inplikazioan politikan eragina izateko lanari begira?

Ondorioak

- Funtsezkoa izan da politikan eragina izateko lana emakumeek bideratu izana; zehazki, ikuspegi feminista duten emakumeek edo, prozesuan zehar ikuspegi hori eskuratu dutenek.
- CEAR-Euskadiren barruan, emakumeok kritikoagoak gara sistema patriarkalarekiko. Gudan eragin zuzena du, eta, horregatik, gehiago inplikatzen gara lan horretan.
- Ikuspegi feminista duten emakumeak, gauza subjektiboez arduratzearen aldeko apustua egin dutenak, izan dira prozesuaren buru, eta, horri zor zaio alderdi giza-tiarraz arduratu izana eta prozesua goxotasunez egin izana. Horiek horrela izanik ere, ez dugu estereotipoetan erori nahi. Gizonezkoek eta emakumezkoek osatutako sareetan ez dut halakorik bizi izan.
- Kanpora begira, GAJ jazarpenari buruzko gaia emakumeek mahaigaineratzeak indarra ematen dio.
- Gai honek emakumezko buruzagiengan interesa sortzeak moteldu egiten al ditu beste prozesu batzuk?

Irakaspenak

- Garrantzitsua da emakumeak izatea emakumeekin zerikusia duten proiektuen buru, ez hargatik, baizik eta ikuspegi feminista dutelako eta gai horiei buruz dakitelako.

- Feminista eta emakumea izatea onuragarria da prozesuarentzat, harremanak zaintzeko moduari eta kanpoko pertzepzioari begira. Balioetsi egiten da emakumeak buru izatea, onerako edo txarrerako (estereotipoak).
- CEAR-Euskadiko kideok lan handia dugu berdintasuna lortzeko. CEAREN kasuan, apustu pertsonala dela-eta inplikatu dira pertsonak, eta ez, erakunde-estrategia dela eta.
- GAJ motei buruzko ikaskuntza teorikoan aurrera egiten jarraitu behar dugu, bai eta CEAR-Euskadiko kideak prestatzen ere, genero-ikuspegiari eta ikuspegi hori lanean aplikatzeko moduari buruz ikas dezaten. Bi urrats daude: (i) teoriarantz aurrera egitea, eta (ii) CEAR-Euskadin informazioa zabaltzea.
- Aztertu egin behar dugu zergatik erabakitzen dugun lantaldeko kideok presidentea (abokatuak) izatea espazio publiko instituzionaletan gure erakundeak ordezkatzen duena: Kostatu egiten al zaigu espazioak okupatzea? Zergatik ez gara ausartzen? Testuinguru juridikoa dela eta? Interesgarriagoa iruditzen al zaigu gure ordez beste batzuk egotea? Zailtasunak al ditugu prozesuaren buru garen emakumeok espazio publikoetan agertzeko? Galdera horiek agerian uzten du generoaren gaia.

Gomendioak

- GAJ emakumeei dagokien gaia izan arren, ez lan egin emakumeekin soilik eta ez jo haiengana soilik. Beharrezkoa da gizonezkoak estrategian inplikatzea; haiek identifikatu dezatela eta beren burua identifikatu dezatela.
- Lan egin ikuspegi feminista oinarri hartuta, emakumei dagozkigun gaiak emakumei soilik egokitu ez dakizkigun.

Zeharkakoak: esparru teorikoa

13. Sexu-aniztasunaren eta genero-nortasunen ikuspegiari (SAGN ikuspegia) dagokionez, zer ikasi dugu aliatutako partaideei buruz?

Ondorioak

- Aldarteri esker, generoa ulertzeko genuen modua zalantzan jarri eta planteamendu honekin bat egin dugu: Sexu-aniztasunaren eta genero-nortasunen (SAGN) ikuspegia. SAGN ikuspegiaren teoria LGBT ikuspegiarena baino harago doa; konplexuagoa eta landuagoa da.

Irakaspenak

- SAGN ikuspegia beste erakunde batzuekin elkarlanean landu dezakegu. LGBT ikuspegitik harago joan gaitzke. Ikuspegi horretan sakontzeko erronka dugu.
- SAGN ikuspegiari dagokionez, lantaldeak eta erakundeak ibilbide luzea du egiteko. SAGN ikuspegiak aldaketa ekarri du: beste era batera ulertzen ditugu sexuaren eta generoaren sistema, eta genero-ikuspegiaren beste elementu batzuk.
- Lantaldean, adostasun politikoa lortu behar dugu gizonengan eragina duten GAJi motei buruz. Lantzeke dagoen alderdi bat da hori; hainbat ikuspegi daude horri buruz. Gauza gutxi bildu da LGBT siglen "G" hizkiari buruz.

Gomendioak

- Erakundeetan, generoari buruzko planteamenduek ez dezatela gizonetzkoa-emakumezkoa soilik kontuan izan. Sexu- eta genero-aniztasuna kontuan hartu behar da, ikuspegia ez dadin baztertzaila izan eta desberdintasun estrukturalari buruzko sakalaketek eta lanak ez dezaten emakumea etengabe biktimizatu.
- Genero-ikuspegian sakontzen jarraitu behar dugu, erresistentzia eta gaitzespena gainditu, eta pertsonen bizitzan eta erakundearen eguneroko lanean nola aplikatu jakiteko.

Zeharkakoak: inplikazioa eta parte-hartzea

14. Nola zaindu ditugu prozesuan zehar pertsonetikiko harremanak eta afektibitatea?

Ondorioak

- Apustu feminista izan da afektibitateari, harremanei eta alderdi subjektiboari garrantzia ematea eta horretaz arduratzea. Horren ondorioz, (i) giro ona sortu da (horretarako, gune informalak ere erabili ditugu, oso garrantzitsuak dira eta), (2) beste pertsonak aintzatetsiz lan egin dugu, (iii) konfiantza sortu da, (iv) modu aktiboan entzun diogu elkarri eta (v) malgutasunez jokatu dugu.
- Indarrak batzeko, garrantzitsua da profesionaltasuna eta gertutasuna nahiz goxotasuna bateratzea.

Irakaspenak

- Profesionaltasuna eta harremanekin nahiz afektibitatearekin lotutako alderdiak uz-tartzea baliagarria da. Hori eginez gero, gauzak hobeto ateratzen dira.
- Harremanekin eta afektibitatearekin lotutako alderdiez arduratzeko denbora hartu behar da, alderdi teorikoez arduratzeko hartzen dugun adina denbora.
- Nahiz eta prozesu honetan intuizio kontua izan den, ez itxaron berez sortu arte: hartu astia gertutasuna bilatzeko; planifikatu.
- EPS lantaldean prozesu ugari abian izatearen erruz, gerta daiteke denbora gutxiago hartzea harremanez arduratzeko.

Gomendioak

- Zaindu harremanekin lotutako alderdiak. Hartu astia horretarako; hartu denbora-tarte bat harremanez arduratzeko.

15. Pertsona batzuen parte-hartzea lortzeari begira, lagungarri edo oztopo izan al da genero-ikuspegia? Nola?

Ondorioak

- Lana genero-ikuspegiaren bidez aurkezteak partaide gehienek edo guztien atek ireki dizkigu; hori izan da denon lokarria. Ikuspegi feminista prozesuan zehar sartu dugu. Hasieran, nahiz eta feminismoa oinarri hartuta lan egin, ez genuen horretaz hitz egiten. Prozesuan zehar, eraiki eta ikasi egin dugu. Ikuspegi feministak mesfidantza sortu du, baina beste ate batzuk ireki dizkigu. Genero-ikuspegiari esker, aliantzak egin ditugu; izan ere, feminismoa genero-ikuspegia baino estigmatizatua goa dago gizartean.
- Emakumeak prozesuan parte hartzera bultzatu ditugu genero-ikuspegiak.
- Genero-ikuspegia eta teoria feminista baliagarriak dira gertatzen diren gauzen funtsean dauden faktore konplexuak ulertzeko, eta kausak hobeto ulertu eta salatzen.
- Garrantzitsua da genero-ikuspuntua erakundearen zenbateraino aplikatzen den; izan ere, horrek baldintzatzen du asilo-eskubidearen arloan GAJi buruzko lanari ematen zaion lehentasuna.

Irakaspenak

- CEAR-Euskadiren barruan, feminismoaz hitz egiteak mesfidantza gehiago sortzen du gizonen eta emakumeen artean, genero-ikuspegiak hitz egiteak baino.
- Feminismoaz hitz egiten ez badugu, ordea, are gehiago estigmatizatu eta okerrago ulertuko da.

Gomendioak

- Genero-ikuspegiaz hitz egiten badugu, feminismoaz ere hitz egin behar dugu. Ez beldurrik izan feminismoaz hitz egiteko. Ez are ikusezinago bilakarazi eta gehiago estigmatizatu.
- Kontuan hartu ikuspegi feminista; izan ere, lagundu egiten du kausak ulertzen: errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu bat da.

4.5. Testuinguruari buruzko OIG

16. Zer eginkizun izan du testuinguruak prozesuan?

Ondorioak

- Testuingurua oso garrantzitsua izan da; izan ere, generoa modan zegoen eta dago. Zer gertatuko da modan ez dagoenean? Zer estrategia erabiliko ditugu lan-lerro horri eusteko?
- Politikan eragina izateko, testuingurua funtsezkoa da. Garrantzitsua izan da testuingurua aztertzea eta modan zeuden gaiak generoa, berdintasunerako politikak, etab. erabiltzea. GAJ eta asilo-eskubidea agerian jarri ditugu.
- Testuingurua lagungarria izan arren, ez da urrats handirik egin genero-arrazoiengatiko jazarpena pairatu duten pertsonak errefuxiatutzat hartzeko.

Irakaspenak

- Unean uneko testuingurura egokitu behar gara. Horretako, besteak beste, teknologia berriak erabili behar ditugu, gizarte-mugimendu berriekin harremanetan jarri behar gara eta eskubideen murrizketak gudan zer eragin izango duen hausnartu behar dugu.
- Testuinguruaz baliatu behar gara. Ez dugu testuinguruaren arabera lan egin behar. Esku artean dugun prozesuarekin zerikusia badu, erabili egin behar dugu. Nahiz eta gaiak garrantzi publikorik ez izan, gaia lehenengo aldiz agerian jartzen duena izatea onuragarria besteek erreferentetzat har gaitzaten.
- Ez aukeratu eragin-lanerako gaia modaren arabera. Garrantzitsua da testuinguruak oztoporik ez jartzea. Hori dela eta, lan egin etorkizunari begira.
- Egon adi prozesuak CEAR-Euskadiren barruan, unean bizi dugun barne-testuinguruaren arabera, zenbateraino bateragarri egin eta arlo guztietara hedatu ditzakegun jakiteko. Erronka ez da samurra.

Gomendioak

- Aztertu testuingurua. Lan egiteko, jakin zein den testuingurua.
- Hartu kontuan zer aukera ematen dituzten teknologia berriek.
- Epe luzeko prozesuetan, lan egin etorkizunari begira, baliatu testuinguruaz eta egokitu testuingurura (jakin aldakorra dela).

